

Osasuna

JABIER AGIRRE

Umeen otitisari aurre egiteko neurriak

Umeengan aski gauza arrunta izaten dira otitisak, belarriko infekzioak alegia. Baina otitisak ez dira beti berdinak, eta horregatik garrantzi handikoa da pediatriaren diagnostikoa, otitisa belarriaren zein zatitan dagoen eta haren jatorria zein den –alegia, bakterioek edo birusek eragindakoa ote den– jakiteko, eta kasu bakoitzean tratamendu egokia agintzeko.

Kanpoko otitisa belarriko entzunbidea estaltzen duen larruzaleko infekzio batek sortua izan daiteke, eta kasu horietan antibiotikoren bat aginduko du medikuak, tanta moduan, belarrian emateko. Erdiko belarriko otitisean, aldiz, birusek eragindako inflamazioak izaten dira prozesu infekziosoaren

sortzaileak, eta baita sudurretik kanporatzen ez diren muki pilatuak ere, umeak hotzeria edo katarroa harrapatu duelako. Baina erdiko belarrian muki edo zorne asko pilatzen bada, gehiegizko likido horrek tinpanoaren gain presio handia egingo du, azkenean tinpanoaren mintza hautsi egingo da, eta belarritik mukia edo zornea kanporatuko du umeak.

Infekzioak umearen tinpanoa hautsi eta zornea kanporantz ateratzen denean, mina baretu egingo

da. Baina umeak itxura hobea duen arren, eta sukarra agian desagertu egin bada ere, tratamendua jarriko du medikuak, tinpanoa behar bezala orbaindu edo zikatrizatu dadin, eta belarriaren barruan azal edo bestelako hondarrak gera ez daitezen, luzarora belarriko hezurtxoetan lesiorik sor ez dadin, eta horrekin batera entzumen-galerak ere baztertzeko. Hala ere, hiru otitis kasutatik bi birusek eraginak dira, ez bakterioek eraginak. Eta horrek esan nahi du tratamendu berezirik gabe sendatzen direla, beren kasa ia. Horregatik, gehienetan nahikoak diren neurri sinple batzuk gomendatu nahi dizkizuet:

- Estatistikek diotenez, amaren esnearekin elikatutako haurtxoek bibe-
roia hartzen dutenek baino otitis gutxiago dute (hamahiru aldiz gutxiago).
- Askotan, mukiak pilatzeak eragindako mina besterik ez da izaten. Hidratazio egokiak muki horiek fluidifikatu egiten ditu, eta horrela ez dira hain erraz gogortu eta pilatuko.
- Garbitu mukiak zure haurtxoari farmazian erositako serum fisiologiko-
arekin. Tantz tanta ematen da, sudurzuloetan. Horrela mukiak “urtu” egi-
ten dira, eta errazago kanporatuko ditu umeak, zintz eginenez.
- Medikuntza alternatiboek, homeopatiak batez ere, emaitza onak lor-
tzen dituzte zenbait kasutan.



Gaitasun kognitiboaren gainbehera 30 urte bete baino lehen hasten da

Hala dio behintzat Timothy Salthouse-k, Viriginiako Unibertsitateko (AEB) psikologia irakasleak, zazpi urte iraun duen ikerketa burutu eta gero. Haren esanetan, 22 urterekin lortzen dugu gaitasunik handiena zenbait ariketa kognitibo egiteko, hala nola konparazioak azkar egitea edo ustez harremanik ez duten datuak elkarrekin lotzea. 27 urterako, hutsuneak sumatu ditu Salthousek pentsamendu abstraktuan eta zenbait ariketa mota ebazteko gaitasunean; halaber, 37 urterako memoria galera antzematen has daitekeela dio ikerlariak. <http://ttiki.com/3272>

Paracetamolak gibelari kalte egitearen “errua” duen genea aurkitu dute, ustez

Jakina da paracetamolak, gaur egun gehien erabiltzen den analgesikoetako batek, gibelari kalte egin diezaiokeela dosi handitan hartuta. Are gehiago, zenbait pertsonari dosi arruntak ere egiten die kalte. Berriki, paracetamola hartuta gibelan lesioa izateko arriskuarekin lotuta egon litekeen genea identifikatu du ikerlari talde batek. <http://ttiki.com/3271>

Unai Brea



Osasunari buruzko galderaren bat egin nahi badiguzu, bidali osasuna@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16